



“Espetxeek ez dute bergizarteratzeko balio”

Garbiñe Biurrun | Euskadiko Ezkerreko kide ohia

Epailearen itaunei ez erantzuteko aholkatu didate beti.
Horregatik hasi natzaio galdezka

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Elizan eta zuzenbidean bekatuak penitentzia dakar...

Bekatu zibilen kasuan zentzuzko oinarria dauka, gainontzeko herritarron eskubideak urratzen dituztelako. Bekatu erlijiosoen kasuan, aldiz...

Jainkoa eta justizia eskutik doaz, ordea. Euren-gan sinetsi liteke baina ez ditu inork ikusi!

Egia da gure disfuntzioak baditugula eta goimailako justizia oso desprestigiatuta dagoela, baina gugana datorren jendea itxaropentsu eta sinesmen osoz dator.

Politikak justizian eragina duela esaten ari zara...

Ikusi besterik ez dago zer borroka izaten den aginte judiziala kontrolatu eta bertako kideak izendatzeko!

Ez esan justiziaren aurrean ez garela denak berdinak.

Ez duzu Botin kasuaren berri, ala?

Nik jendea kartzelara bidaltzen duzula baizik ez dakit.

Badakit espetxeak zer egoeratan dauden eta preso sartzen dugunari askatasuna baino askoz gehiago kentzen diogula. Badakit espetxeek ez dutela bergizarteratzeko balio. Eta hala ere... Legea legea da, ez daukat beste erremediorik.

Horixe bera esaten dio nagusi aberatsak kaleratzera doan langile pobreaki.

Sekulako arazoa da badakidalako jartzen dudana zigorra askotan zigor hutsa izango

dela. Espetxeak gizarteak nahi ez dituen pertsonen biltegi bihurtu dira. Ahaztu zaigu pertsona horiek gizartera itzuli behar direla. Horrek ez dauka etorkizunik.

Kontzientzia zatitzen dizuten legeak ere aplikatzen dituzu, ala?

Epaileok ezin dugu kontzientzia arazorik planteatu eta egokitzen zaizkigun auzi guztiak ebatzi behar ditugu.

Arazo horiek plazaratzeko zara orotariko tertuliakidea?

Epaileok eta pertsona guztiok daukagu ideologia. Ez daukatela diotenak eskuin-eskuinekoak dira. Askotan isiltzea hitz egitea bezain esanguratsua da, eta iruditzen zait jende guztiak zor diola bere iritzia gizarteari.

Eskuindarra ez zarela frogatu nahi duzu, beraz?

Ez daukat ezer frogatu beharrik, baina Francok ere “egizue ni bezala, ez sartu politikan” esaten zien bere ministroei.

Zu politikan sartzeko gogoz ez ote zabiltzan...

Epaile izatea politikan egotea da. Ez da alferrik botere judiziala botere nagusienetakoa. Legeak aplikatzea eta administrazioa kontrolatzea baino lan politikoagorik!

Ezkerra Bizi-Bizirik!

Liberalismoak ez du sekula giza-eskubiderik bermatu. Ezkerraren barruko autokritika destruktiboetatik harago, ezkerra da munduaren itxaropen bakarra! ■